

Hernanik kronika

TOKIKOM

2013ko abenduaren 19a, osteguna::: 4.589 zk. ::: www.kronika.net

IKASLEEN TXOKOA

Inmakulada ikastetxeko ikasleen eskutik /4-5



ASTEARTEKO PLENOA

Onartu dira udal aurrekontuak

30.813.312 euroko aurrekontua izango du Udalak 2014an. Gaur, Espainiako Kongresuak onartuko duen legearen kontrako mozioa ere onartu zuen Plenoak eta kontzentrazioa deitu dute, 12:45etan.

PLENOA izan zen asteartean eta 2014ko udal aurrekontuen proposamena onartu zen, Gobernu Taldearen aldeko botoekin. Oposizioak kontra bozkatu zuen. Aurrekontu hauen arabera, 30.813.312 euro izango ditu Hernaniko Udalak datorren urtean, aurten baino 713.829 euro gehiago. Erreklamazioak egiteko, ikusgai egongo da 15 egunez. Bestalde, lau mozio onartu ziren eta horien artean, Espainiako Kongresuak gaur onartuko duen Toki administrazioaren erreformarako legearen kontrakoa. Horren harira, kontzentrazioa deitu dute 12:45etan udaletxe aurrean. /7

❖ AURKEZPENA

'Ataramiñe' koadernoak Garinen aurkeztuko dute

Ataramiñe izeneko koadernoak aurkeztuko dute gaur, Garinen. Presoek egindako literatur lanez osatutako lana da Ataramiñe, eta aurten 13garren alea argitaratu dute. Aurkezpena Joxe Karlos Apeztegiak egingo du, 19:00-etatik aurrera. Ale batzuk ere izango omen dira salgai aurkezpenean bertan. /2

◆ KIROLDEGIA

Txartela egiteko, ordutegi berria

Kiroldegiko txartela egiteko ordutegi berria jarri dute: 08:00etatik 13:30etara eta 16:00etatik 20:00etara. II

❖ GABONAK

Ozenki eta Musika Banda larunbatean, eta Txistulari Banda igandean

Kontzertu faltarik ez da izango, Gabonak direla eta. Ozenki abesbatzak eta Musika Bandak kontzertua emango dute, larunbatean, 19:30etan, Milagrosan. Eta igandean, Txistulari Bandako kideak ariko dira, biolin bikoiteak lagunduta, 13:00ean, Milagrosan. II



Udalak azterketa hasiko du gazte lokalei buruz

GAZTE lokalak gero eta gehiago dira Hernanin, eta errealitate horri buruz azterketa egin nahi du Udalak, parte hartze prozesu baten bidez. Hernaniko gazteei galdetuko zaie, eta baita lokal horiek dauden auzoetako bizilagunei ere. Hiru fase izango ditu prozesuak, eta helburu nagusia da protokolo bat erabakitzea, elkarbizitzarako. /2

GAUR KRONIKAN

Gabonetako Zozketa Berriak eta Hernaniko Kronika /8

biokbi optika
Antziola, 14 - Tel.: 943 33 88 86

ESKAINITZA
%20 BEHERAPENA MONTURA GUZTIAZ

ZATOZ ETA AUKERA EZAZU GUSTUKOENA

ESKAINITZA BEREZIA
Kristal antirreflektatuen bertsio berria osatzen (Azaroaren 14tik Abenduaren 14ra)

Alejandro Alcibar
Optika Optometria, 12.244.406

biokbi optika
R.P.S. 174/06

GABON HAUETAN
OPARITU EDERTASUNA ETA ONGIZATEA
ETORRI GURE TRATAMENDUAK EZAGUTZERA

nibiru
UNIKER EDERTASUNA ZENTROA

AUTOMATIKALARI IKASTASOA	INBIDA TRATAMENDUA
MAINTUTIA FEBRURA	MIKROPIGMENTAZIOA
MASAJEAK	SPA TRATAMENDUA
	FOTODEPIILAZIOA

19:00-21:00
30100 Hernani
Gipuzkoa

Tel: (+34) 943 24 35 60
M: (+34) 649 581 538
E: info@nibiruedertasu.com
www.nibiruedertasu.com

tripontz taberna

**PINTXOKI
BIZIKOKI
ENTZULEKOKI**

**BOKETAK
PLATER
BONETAK**

**ZATOZ
DASTATZERA!**

Kardaberaz kalea, 11 • HERNANI
943 555 724

GAZTE LOKALAK - PARTE HARTZE PROZESUA

Azterketa egingo dute gazte lokalei buruz, elkarbizitza protokolo bat zehaztu asmotan

Hernanin 20 lokaletik gora erabiltzen dituzte gazteek, eta errealitate bat bihurtu da. Hernaniko Udalak jakinarazi du berak ez duela «arazo bezala» ikusten, eta prozesu bat irekiko duela alde guztiekin hitz egiteko, martxora bitarte.

ZENBAIT auzotan gero eta gehiago dira gazteek hartzen dituzten lokalak, eta errealitate bihurtzen ari dira. Hernaniko Udalak ez du hori «arazo bezala» ikusten, baina «ausnarketa bat» eskatzen duela uste du, gazte horiek, bertako bizilagun, eta lokalen jabeen artean.

Udalak otsaila arteko prozesua martxan jarri du, eta atzo aurkeztu zuen prentsaurrekoan, Lizeagako gazte lokal baten aurrean. Bertan ziren, Luis Intxauspe Alkatea, Maialen Apezetxea udal teknikaria, eta Maitane Barrenetxea Aztikerreko kidea. Prozesuak hiru fase izango ditu eta Aztikerrek gidatuko du.

Gazte lokalen errealitatea

Udala auzoz auzo ibili da bilerak egiten, eta auzo bat baino

gehiagotan hitz egin dute gazte lokalei buruz. «Kejak ere izan dira, zaratatik, batez ere, eta egia da elkarbizitza posible izan dadin hitz egin beharra dagoela». Horrez gain, Udalak gauza positiboak ere ikusten dizkie lokal horiei, gazteak elkartzeko puntu diren aldetik. «Ez da gure belau-naldian elkartzen ginen modua, baina gaur egun hor elkartzen dira eta hori positiboa da; horrela ikusten dugu guk, behintzat. Eta arazoren bat sortzen bada, konpontzen saiatu beharko dugu».

Protokoloa zehazteko bidean, hiru fase

Hain juxtu horrexegatik, protokolo bat zehaztu nahi du Udalak, gazteen, bizilagunen eta lokal jabeen artean. Horretarako, hiru faseko prozesua

HIRU FASEKO PROZESUA:

0-Diagnostikoa egitea: Udalak egingo du diagnostikoa.

1-Saio espezifikoak: gazteekin alde batetik, eta bizilagun, lokalen jabe eta abarrek beste aldetik

2-Saio bateratuak: hiru saiotan elkartuko dira alde guztiak batera, elkarbizitza protokolo bat zehazteko.

bideratuko du Aztiker enpresak. Hala adierazi zuen Barrenetxeak: «Lehendabiziko fasea guk egingo dugu, 0 fasea deitu diogu, eta diagnostikoa egitea izango da. Gabonen bueltan hasi eta bukatuko da. Zenbat lokal dauden, non dauden, zenbat ordaintzen diren, zein baldintzetan dauden, zailtasunik izan al duten lokala lortzeko, zergatik erabaki duten lokala hartzea...».

Ondorengo fasea, beraiek bigarrena deitu diotena, irekia izango da, baina bakoitza bere aldetik bilduko dute. Alegia, gazteak elkartuko dituzte alde batetik, urtarilaren 22an; eta beste alde batetik elkartuko dituzte bizilagunak, lokalen jabeak, eta adin txikikoen gurasoak, urtarilaren 23an.

Azkeneko fasea, bigarrena deitu diotena, alde guztiak

elkartzeko egingo dute, eta hiru bilera izango dira: otsailak 13, *Nolakoa da gazte lokalen inguruko elkarbizitza?*; otsailak 27, *Nolako elkarbizitza nahi dugu?*; martxoak 13, *Elkarbizitza... hartu eta eman*.

Saio guztiak Biterin egingo dira, 18:30etatik aurrera. Pentsatzen ari dira hasierako saioa lokalen batean egitea ere.

Blog bat, eta galdetegia, herritar guztien esku

Zuzenean inplikaturako aldeekin hitz egingo dute prozesu honetan, batez ere. Dena dela, bilerak irekiak izango dira interesa daukatenentzat. Horrez gain, bloga ere jarri dute, eta bertan informazioaz gain, galdetegia jarria dago, erantzun nahi duen guztiarentzat: hernanikogaztelokalak@blogspot.com helbidean, hain zuzen. ■

AURKEZPENA

'Ataramiñe' koadernoak aurkeztuko dute gaur Garinen, errepresaliatuen lanez osatua

Joxe Karlos Apeztegiak aurkeztuko du koadernoak, arratsaldeko 19:00etatik aurrera, Garin tabernan.

ATARAMIÑE izeneko koadernoak urtero ateratzen da, euskal errepresaliatu politikoei egindako literatur lanez osatua. Aurten 13garren alea kaleratu dute, eta Hernanin ikusteko aukera izango da, gaur, 19:00etatik aurrera, Garinen. Joxe Karlos Apeztegiak egingo du aurkezpina, Hernanin bizi den iruñarrak, eta besteak beste azalduko du zer den Ataramiñe, eta aurtengo aleak zer biltzen dituen.

Literatura, poesia, bertsoak... eta gehiago

Era guztietako lan literarioak biltzen ditu koaderno honek. Gehiena presoen kartzetako egoerari buruzkoak dira, baina badira bestelako lanak ere. Poesia, bertsoak, marrazkia... denetik dauka

'ATARAMIÑE' KOADERNOA:

Izaera kolektiboa dauka, protagonista batek baino gehiagok egingo delako.

Euskeraz idazten dute gehienek, baina badira gaztelarazko testuak ere,

eta horrez gain, bada bat berezia, galegoz idatzia dagoelako. Hori guztia

marrazki eta komikiez lagunduta dago, eta egileei buruzko informazioa ere bai.

koadernoak. Izaera kolektiboa dauka koadernoak, protagonista batek baino gehiagok egingo delako. Euskeraz idazten dute gehienek, baina badira gaztelarazko testuak ere, eta horrez gain, bada bat, berezia, galegoz idatzia dagoelako. Hori guztia marrazki eta komikiez lagunduta dago, eta egileen izenak ere biltzen dira bertan. Zein eta ze espetxetan dagoen...

Ale batzuk salgai izango dira Garinen bertan

Aurkezpina egingo duen kideak berak idatzitako testuak ere baditu koaderno honek, eta aukera izango da bertan eskuratzeko, ale batzuk ekarriko baitituzte aurkezpenera. Arratsaldeko 19:00etan hasita, Garin tabernan. ■

❖ ARGAZKILARITZA

Indiara argazki-bidaia, Aste Santuan

Datorren Aste Santuan (apirilak 12-26) Indiara argazki-bidaia egiteko aukera izango da. Prezioa: 500 euro + hegaldia.

Apuntatzeko: aritzarrondo@gmail.com edo 661 432 242. ■

❖ IKASTAROA

Bisuteria-abalorioa tailerrera izenematea

Gaur da azken eguna bisuteria-abalorioak ikastaroan apuntatzeko. Biteri kultur etxean egin behar da izenematea. ■

❖ ERAKUSKETA

Iker Valleren erakusketa, Donostian

Iker Valle atzo ireki zuen bere azken erakusketa, *Ebakidurak eta josturak*. Donostiako Okendo kultur etxean jarri ditu lanak ikusgai, urtarilaren 24ra bitarte. Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 10:00-14:00 eta 16:00-20:30; eta larunbatetan, 10:00-14:00 eta 16:30-20:00. ■



IKASLEEN TXOKOA | 55 |

Inmakulada

IKASTETXEA

● / 2013-XII-19 osteguna /

«Belak garrantzia oso handia hartu du nire bizitzan» // III

EGILEAK
Anthony O., Maialen J.,
Ane A., Iratxe A.



Pentsatu al duzu inoiz zure ametsetan?



// II

EGILEAK
Ane U., Judith Q.,
Dani P., Javier H.

Gose JokuaK: Su-garretan, emozio eta tentsio askoko pelikula



EGILEAK
Juan F., Paul F.,
Jhon Jairo

// II

Azken belaundaldietako bideoak, oso errealistak, dibertigarriak eta emozio handikoak dira

// IV

EGILEAK
Alejandro R., Hao Hao Z.,
Ronny A., Igor H., Loren R.



IKASLEEN TXOKOA | 55 |

Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

INMAKULADA IKASTETXEA

Pentsatu al duzu inoiz zure ametsetan?

Gauero mota askotako ametsak eduki ditzakegu: ulergaitzak, amesgaiztoak... Askotan gero, esnatzean, ez ditugu gogoratzen, baina horrek ez du esan nahi ametsetan egon ez garenik. Pentsatu al duzu inoiz horretan, zure ametsetan?

Ametsak oraindik misterioak dira, inork ez dakielako zehazki zergatik eta zertarako sortzen diren. Guk hainbat gauza jakitea lortu dugu; hala nola, ameslarien entsamenduek eta sentimenduek ametsen mundua osatzen dutela.

Gauero ez dugu amets bakarra izaten, baina esnatzen garenean ohikoena izaten da ezer ez gogoratzea. Zergatik gertatzen da hau? Badaude zenbait teoria: Sigmund Freuden ustez, ametsak guk gertatzea nahi ditugun nahiak dira, eta haiek maneiatzeko prest ez bagaude, garunak blokeatu egiten ditu, bestela traumatikoak izango lirateke-eta. Beste batzuek diotenez, behin esnatu garena ez ditugu ametsak gogoratzen gure garunarentzat interesgarriak edo ulergarriak ez baitira.



Amets bat baina gehiago izaten ditugu gauero. Goizean gogoratzen al dituzu?

Halaber, teoria ezberdinak garatzeaz gain teknologia ere asko aurreratzen ari da ametsen ikerketetan. Badaude ametsekin loturiko tresna edo asmakizun batzuk nahiko bitxiak iruditu zitzaizkigunak: REM-Dreamer betaurrekoak, esaterako, ametsak kontrolatzeko aukera ematen digute. Eta nola izan daiteke hori posible? Antza denez, ametsetan zaudenean begiek beste

higidura mota bat egiten dute eta betaurreko horiek zure begien mugimenduak hautematen dituzte. Horrela, lotan zaudela, betaurrekoek argi eta soinu jakin batzuk egiten dituzte eta zuk, ametsen ikusi eta entzuten dituzu. Horren ondorioz, bada-kizu ametsetan zaudela eta, esnatu gabe, ametsa kontrola dezakezu.

Ikusten dugunez, gaur egun

ere ametsak gauza harrigarri eta bitxiak dira guretzat, baina agian etorkizunean, haiei buruz gehiago jakiteko ahalmena izango dugu, batek daki. Gu, hala ere, Pedro Calderón de la Barcak esan zuenarekin geratu gara: "Ametsak amets dira".

EGILEAK

Ane U,
Judith Q,
Dani P, Javier H

Gose Jokuak: Su-garretan, emozio eta tentsio askoko pelikula

Datozen lerroetan, *Gose Jokuak*: Su garretan pelikularen azterketa egingo dugu. Ikusi aurretik, ondoren, eta argumentuaren inguruan ariko gara:

Ikusi baino lehen

Trailerra ikustean pelikula oso interesgarria dela ematen du eta lehenengo pelikulak baino akzio gehiago daukala antzematen da. Trailerra ikusi eta gero, pelikula ikusteak, pena merezi duela uste dugu.

Ikusi eta gero

Pelikula oso ondo dago, espero genuena baino emozio eta tentsio gehiago dauka, gu behintzat harrituta geratu gara.

Hasieran pixka bat aspergarria eta motela egin zaigu, lehenengo bezalakoa, baino gero, akzioa hasten denean, gauza aldatzen da. Denetatik dauka:

misterioa, akzioa, maitasun eszenak eta baita momentu tristeak ere. Pelikularen bukaerak jakin-minez utzi gaitu eta hori guretzat eta ekoizleentzat oso ona da, horrela guk hirugarren pelikula ikusi nahi izango dugu eta beraiek diru gehiago irabaziko dute.

Argumentua

Dena hasten da bira batean protagonistarekin. Neska distritu guztietara, hau da, herri-ka txiki batzuetara, doa berak lehenengo aldiz Gose Jokuak irabazi dituela ospatzera. Baina distritu guztietan egon ondoren denek iraultza egingo dute, gobernuaren kontra.

Gose Jokuetan parte hartzeko lehiakidearen izena atera behar zen zozketa batean. Baina gose joko hauek ez ziren beti bezalakoa: honako hone-



Bukaerak jakin-minez uzten gaituen pelikula horietakoa da.

tan distritu bakoitzean aukeratuak lehen izandako irabazleak ziren.

Hasieran protagonistak beste jokalarien artean aliatuak zeuzkala ikusi zuen. Bestalde, ordu bakoitzean fenomeno desberdinak gertatzen zirela konturatu zen: lehenengo orduan laino toxiko bat atera

zen; bigarren orduan tximino eroen erasoak izan zituzten; hirugarren orduan odol euria egin zuen; laugarren orduan tsunami bat agertu zen. Nola bukatuko ote dira joko hauek?... Erantzuna zineman bertan aurkituko duzu...

EGILEAK

Juan F., Paúl F., Jhon Jairo

55

zenbakia





«Orain erabiltzen dutan txalupak 'Laser' izena du».

«Belak garrantzia oso handia hartu du nire bizitzan»

**Noiz hasi zinen bela egiten?
Zerk bultzatu zintuen kirol
hau egitera?**

Duela bost urte hasi nintzen, baina ez ninduen ezer berezirik bultzatu. Serioski hasi baino lehen kurso batzuk egin nituen nire lehengusinarekin eta ondoren animatu nintzen jarraitzera.

Astean zenbat egunetan praktikatzen duzu kirol hau? Zenbat irauten du entrenamenduak?

Astean bi aldiz entrenatzen dut, aste-buruetan. Entrenamendu bakoitza bost ordukoa izan ohi da, 10:30etatik 14:30etara.

Askotan telebistan bela txapelketak ikus ditzakegu. Ba al dago aukerarik parte ez hartzeko? Zuk parte hartzen al duzu beti?

Berez, ez da derrigorrezkoa txapelke-

«Txapelketak oso dibertigarriak dira, mundu guztiko jendea joaten delako eta oso ondo pasatzen dugulako»

«Itsasoan egiten duen hotzari aurre egiteko neoprenoa eta likra dira jantzi erabilienak eta onenak»

tetan parte hartzea, baina merezi du, benetan; oso dibertigarriak dira mundu guztiko jendea joaten delako eta lagunekin oso ondo pasatzen duzulako. Nik behin hartu nuen parte, baina urduri jartzen naizenez nahiago dut bakarrik kirola egitea.

Nola deitzen da erabiltzen duzun txalupa mota?

Orain erabiltzen ari naizenak "laser" izena du. Txalupa mota hau autoaren goialdean eraman daiteke. Ontzi mota hau pertsona bakar batentzat da eta pisu arinekoa izan behar du. Orain arte "optimist" erabiltzen nuen, 1947an diseinatutakoa eta oso aproposa 6 eta 15 urteko gazteentzat.

Zer jantzi erabiltzen duzue kirol hau egiteko?

Neoprenoa edo likra, onenak dira itsasoan egiten duen hotzerako.

Zer garrantzia du belak zure bizitzan?

Nire bizitzan garrantzia oso handia hartu du belak, ohitu egin naiz nire itsasontziarekin nabigatzera.

Zein bela elkarteko kide zara?

RCNSS(Real Club Náutico de San Sebastian), betidanik nago elkarte horretan.

Etorkizunerako planik ba al daukazu itsasoarekin lotuta?

Nire ametsa ontziola batean lan egitea da. Ontzioletan itsasontziak eta txalupak egin eta konpontzen dira, eta nik oso gustukoa dut hori.

EGILEAK

Anthony O.,
Maialen J.,
Ane A.,
Iratxe A.

55

zenbakia

ikasleen txokoa

Azken belaundaldietako bideokoak, oso errealistak, dibertigarriak eta emozio handikoak dira

GAUR egungo gazteek ordu asko ematen dute bideojokoekin jolasten. Horren ondorioz, bai bideojoko, bai kontsolen eskaera gero eta handiagoa da. Adibidez: Xbox One eta Play Station 4 kontsolak, arrakasta handia ari dira lortzen mundu mailan azken belaundaldiko jokoei esker, oso errealistak, dibertigarriak eta emozio handikoak, besteak beste, direlako.

Kontsola eskatuena, Play Station 4 eta Xbox One

Aurtengo kontsolen artean eragin handien izan dutenak Play Station 4 eta Xbox One izan dira. Alde batetik, motor grafikoaren kalitatea hobetu dute irudiak zehatzagoak egin dituzte. Bestetik, errealismo handiagoa irudikatzen dute azken urteetako teknologia-garapenari esker.

Hau da, hain zuzen, Xbox One kontsolaren kasua, "kinect" sistema daukana. Honi esker, egiten ditugun

mugimendu motak edo ahotsak kamera baten bidez jasotzen dira eta ondoren gailuak jolasean irudikatzen dizkigu.

Prezio aldetik ere badago alde handia. Play Station 4-ak 400 euro balio du, Xbox One baino 100 euro merkeagoa. Gainera, bi aste geroago ateratzen salmentan, denbora tarte horretan enpresak beste lehiakideen aurrean salmenta gehiago lortzeko asmoz.

Azkenik, bi kontsolek munduko edozein jokalarirekin online jokatzeko aukera ematen digute, baina 50 euro ordaindu behar dira urte bakoitzetara. Play-aren kasuan lehen aldian da zerbitzu hau kobratzen dutela; bestean, berriz, lehendik egiten da.

Jokoak, geroz eta eksklusiboagoak

Jokoen eskaintzari dagokionez gero eta joko eksklusiboagoak ari dira ateratzen, hots, enpresa bakoitzaren pro-



Play Station eta Xbox markako kontsolak dira, desiratuena.

duktuentzako soilik balio dutenak. Hori dela eta, kontsola horien salmentak igotzen dira eskaeraren ondorioz eta enpresak lehia handia sortzen du beste konpainiengan. Hau da, izan ere, Sony eta Microsoft-en kasua: "The Last of Us" Play Station 4-aren joko eksklusiboa denez, jendeak

kontsola hori erosten du, joko hori erabili ahal izateko. Gauza bera ere gertatzen da "Dead Rising 3" jokoarekin, Xbox One-ekoa dena.

EGILEAK

Alejandro R., Hao Hao Z., Ronny A., Igor H., Loren R.

Ikasleen Txokoa - 55 zk.

INMAKULADA IKASTETXEA

EGILEAK:



ASTEARTEKO PLENOA

30,8 milioiko aurrekontua izango du Hernanik datorren urtean, %2,3 gehiago

713.829 euro gehiago izango du Udalak datorren urtean. Asteartean onartu ziren 2014ko aurrekontuak eta orain, 15 eguneko epea dago udaletxean aurrekontuak begiratu eta erreklamazioak egiteko. Floridako urbanizazio plan berria ere onartu du Plenoak. Baita lau mozio ere. Horien artean, Espainiako Kongresuak gaur onartuko duen tokiko administrazioaren erreformarako legearen kontrakoa. Eta kontzentrazioa deitu dute 12:45etan udaletxe aurrean.

2014 urteko udal aurrekontuen proposamena onartu zuen asteartean, Plenoak. 30.813.312 euroko aurrekontua izango du Hernanik datorren urtean, aurreko baino %2,3 gehiago; 713.829 euro gehiago. Gobernu Taldearen botoekin onartu ziren; oposizioa hiru alderdiek (PSE-EE, EAJ-PNV eta H1!) kontra bozkatu zuten. Osoko zuzenketak aurkeztu dituzte.

Orain, aurrekontuak jendarean ikusgai daude eta 15 laneguneko epea dago aurrekontuak aztertzeke eta erreklamazioak egiteko. (Gaiari buruzko informazio zabalagoa emango du Kronikak asteburuan).

Floridan 308 etxe, eta guztiak babes publikoren bat dutenak

Lankidetzarako hirigintza hitzarmen bat ere onartu zuten Plenoan. Hitzarmena, Udalaren eta Diputazioaren Itten Herriekin Lan Egiten S.A. erakundearen artekoa da, Floridako urbanizazio planari dagokiona. 2006an, Etorlurrekin (gaur egun, Itten) hitzartu zuen Udalak AMR Floridatik atera eta auzoan hirigintza proiektu bat aurrera eramatea. Proiektu hori ez dela bideragarria ikusi du Udalak eta hitzarmen berria adostu dute.

Hitzarmen berriaren arabera, 332 etxebizitza egin beharrean, 308 etxebizitza egingo dira Floridan. Lehen, %40 librean ziren, %40 kontzertatuak eta %20 babes ofizialekoak. Orain, %100ean babes publikoren bat duten etxebizitzak izango dira eta alokairura bideratuko dira asko. Horrez gain, etxebizitza guztien erdiak hernaniarrentzat izango dira, hasieran baino gehiago. Ordenazio urbanistikoa hobetzen saiatu direla azaldu zuen Luis Intxauspe alkateak eta espazio ireki gehiago izango da. Bestalde, Udalarentzat 15 etxebizitza izan beharrean, 4 izango dira eta Landare-toki Udalaren jabetzara pasa beharrean, Diputazioak utzi egingo dio 30 urteko erabilerarako eta gerora Udalarena izateko aukera biltzen da. Hasierako hitzarmenaren bezalaxe, 600 m²ko lokal bat Udalarentzat izango da.



Garai batean AMR enpresa zegoen lur zatia, Floridan.

Lege berriarekin, kompetentzia gutxiago

Udaleko Enpresa Batzordeak (LAB-ELA) aurkeztutako mozioa ere onartu zen asteartean, Espainiako Kongresuak gaur onartuko duen Toki administrazioaren erreformarako legearen kontrakoa. Puntuka bozkatu zuten eta aurreneko eta azken puntua aho batez onartu ziren; bigarrenaren eta hirugarrenaren, sozialistak abstenitu egin ziren. Hori horrela, honakoa onartu du Udalak:

«1. Lege-proiektua errefusatzeko dugu, Udalen eta toki administrazioen kompetentziak eta finantza-baliabideak murrizten dituelako, zerbitzu publikoak herriarregandik urrunduz; zerbitzu publikoen merkantilizazioa bultzatzen duelako; eta langileen baldintzak jo mugan jartzen dituelako.

2. Euskal Herriko herritarron beharretara egokitutako instituzio-antolaketa erabakitzeko, eskubidea aldarrikatzen dugu.

3. Euskal Herriko langile guztien negozio-erabakiek defendatzen dugu; Lan Harremanetarako Euskal Esparrua funtsezkoa izanik.

4. Udalak ahal duen neurrian lege hau ez aplikatzeko konpromisoa hartzen du».

Honen harira, kontzentra-

Udalak harreman instituzionalak bideratuko ditu Jaurlaritzarekin, Hezkuntza Sailak 2014an diru partida bat eman dezan Hernani BHIko eraikin berria egiteko.

«Legebiltzarrak aho batez onartu zuen musika eskolentzat %33ko finantzaketa egonkorra lortzeko ekintza-plana ezartzea, baina egun, finantzaketa %14koa da soilik»

zioa egingo dute gaur Udal langile eta agintariekin, 12:45etatik 13:15etara, udaletxe aurrean.

«Egoera larria da, ikasleak Agustin Iturriagan pilatzen dira»

Hernanin, Bigarren Hezkuntzako eskolarizatzeko beharrei erantzuteko (bateratzea zela eta), eraikin berri bat egiteko konpromisoa hartu zuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Administrazioak. Orain gutxi, bertan behera uzteko erabakia hartu duela jakin da eta erabaki

horren aurkako mozioa aurkeztu zuen Hernani BHIko Eskola Kontseiluak asteartean. «Datak bete ez badira ere, azken aldian proiektua martxan zegoela pentsatzen genuen eta jakin dugu, bertan behera uztea erabaki dutela oraingoz, eskola komunitateari inolako azalpenik eman gabe. Egoera larria da. DBH 3-4 eta Batxilergoko ikasleak Agustin Iturriagan pilatzen dira eta eragin kaltegarria du», azaldu zuten.

Mozioarekin aho batez onartu zuen Plenoak, honakoa: Hernaniko Udalak harreman instituzionala bideratzea Jaurlaritzarekin, Hezkuntza Sailak 2014 urtean diru partida bat eman dezan Hernani BHIko eraikin berria egiteko eta 2014an eraikinaren adjudikazio publikoaren fasea gauzatzeko. Eta Udalaren laguntza eta bultzada ziurtatzea.

Eusko Jaurlaritzak emandako finantzaketa, %33koa izatea Musika Eskolako ordezkariak ere mozio bat aurkeztu zuten Plenoan. 2013ko otsailaren 28an Legebiltzarrak aho batez onartu zuen musika eskolentzat %33ko finantzaketa egonkorra lortzeko ekintza-plana ezartzea, baina gaur egun, Eusko Jaurlaritzak emandako finantzaketa,

%14koa da soilik. Hori horrela, Hernani Musika Eskolako taldeak Plenoari eskatu zion, mozioa onartzeko eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari eskatzeko, Legebiltzarrak aho batez onartutako transakzio-zuzenketa betetzea, musika eskolentzat %33ko finantzaketa egonkorra lortzeko asmatan. Aho batez onartu zen.

ITVko gatazka konpontzeko, erakundearen babesa

Urnieta eta Irungo ITV-IATko langileek 160 egunetik gora daramazkete greban, enpresak lan hitzarmena berritu diezaien borrokan. TÜV Rheinland Iberica S.A. enpresak daramaki zerbitzua Eusko Jaurlaritzak ezarritako kontzesio kontratua dela eta. Hori horrela, langileek erakundearen babesa eskatu dute, tartean Hernaniko Udalarena, Eusko Jaurlaritzak esku hartu dezan eta gatazka bukatu dadin. Honakoa onartu zuen Plenoak, aho batez: Jaurlaritzari eskatzea, ahal duen guztia egiteko lehenbalehen TÜV Rheinland Iberica S.A. enpresa kontzesiodunarekin, gatazka konpontzeko. Eta neurriak hartzea, EAEko gidariekin ITV zentrua modu librean aukatzeke eskubidea izan dezaten, kalitatezko zerbitzua jasoz. ■

TELEFONAK

● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 092 ● **DYA:** 943 464622

● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037

● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103

● **FARMAZIAK:** Egunez: **Castilla** Urbietta 7 - 943 552941 ● Gauez: **Aldabe** Perkaiztegi 8 (Antziola) - 943 336022



GAUR

Ipar mendebalako joko du gaur, zakar antza. Euria egingo du, eta giroa hoztu. Trumoi-ekaitza ere ekarri dezake, iluntze partera batez ere. Min.10° / Max.13°

BIHAR

Gauean Adarra punta zuritu lezake, baina segituan lumendu-ko du. Eguzkiak tarteren bat bi-latuko du, baina euria ere egingo du. Min.8° / Max.12°

(euskaltel)

BERRIAK ELKARTEA - HERNANIKO KRONIKA - GABONETAKO ZOZKETA

Lau saski zozketatuko dira bihar eguerdian

Berriak merkatari eta ostalarien elkarteak eta Hernaniko Kronikak lau saski zozketatuko dituzte bihar, eguerdik 12:00etan, Biteri kultur etxean. Berriak elkarteko bazkideek emandako sariekin osatutako saskiak dira.

GABONETAKO lau saski zozketatuko dira bihar eguerdian, 12:00etan, Biteri kultur etxean. Opariz betetako saskiak dira eta ez edonolakoak, Berriak-eko dendariak emandako sariak baitira. Badago asteburu pasa bat Kantabriar, janari loteak, arropa, aurpegi garbiketa sesioak... baita tablet bat ere!

Urtero antolatzen dute Berriak-ek eta Hernaniko Kronikak gabonetako zozketa, eta gero eta arrakasta handiagoa du jendearen artean. Aurten ere errifa asko saldu dira, eta ez da gutxiagorako, sariak ikusita.

Lau saski, opariz beteak

Lehendabiziko hiru saskietan 10-15 sari inguru izango dira. Errioguardan afaria, Urumea burdindegiko labana sorta, Portalondoko maletin bat, Adarragako turroia... era guztietako sariak izango dira. Oindik jarritako ardoa, Amegarrek kafetera, Aitor Peñak 5 litro olio... Aralarrek Arnegui

Saskiak banatzen ez badira, beste zozketa bat egingo da.

Magnum kaja... Telemarrek jarritako tablet bat... Laugarren saskia berriz, nola ez ez, urtero bezala, Hernani Bidaia-ek jarritako asteburu pasa izango da, eta horri laguntzeko Kaixok jarritako bidaia-poltsa bat. Aurten bidaia, Kantabriar asteburu pasa agroturismo batean.

«Ez errifarik bota sari guztiak banatzen diren arte»

Larunbatean argitaratuko du Hernaniko Kronikak zein diren saskietako irabazleak. Hortik aurrera zazpi egun emango dira errifak aurkezteko. Saskiren bat banatu gabe geratzen bada, abenduaren 27an beste zozketa bat egingo dute Berriak-ek eta Kronikak. Berriz ere saskia banatu gabe geratuko balitz, urtarilaren



Kaixo dendak jarri ditu: emakumezkoentzako aterkia eta kartera, gazteentzako motxila eta estutxea, eta maleta bat.

3tik aurrera Kronikan entregatzen diren errifa guztien artean zozketa egin eta batek irabaziko du.

Horregatik, arduradunek jakinarazi nahi dute ez botatzeko errifak sari guztiak banatzen diren arte. ■

IRAGARKI MERKEAK

Pisua alokagai zentroan, 2 logela, sala, komona eta sukaldea. Amueblatua eta igogailuarekin.
Deitu: 617 426 489 / 943 33 61 32

Etxe unifamiliarra salgai, 160 m²+250 m² lorategi + 90 m² terraza, trastelekua, txokoa, garajea, 2 solairu. Deitu: 699 49 22 35 (partikularra)

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)



Usurbilgo OIARDO Kiroldegian

2013ko abenduaren 21ean, bi saio: 16:00etan eta 18:30etan

Pirritx, Porrotx eta Mari Motots

"Bizipoza" lan berriaren aurkezpen emanaldia

Sarrerak: aurretik 8 euro / egun berean 9 euro
(12 hilabete arteko haurrak doan)

Salmenta puntua: Hernanin (Leokadisti),

Antolatzailea: ARGIAren Lagunak Usurbilgo Taldea.

Harremanetarako: 943 37 15 45 / sustapena@argia.com